

## BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak proposatzen duen produktua larrialdietarako eskumutur bat da. Eskumutur honek, botoi bat edo gehiago izango lukete eta sakatzuz gero nahi duzun zerbitzura edo partikularrera deitzeko aukera ematen dizuna. Zerbitzuen artean, polizia (adibidez eraso baten aurrean poliziarri deitzeko), ospitaleak (gaixotasun larri bat duten pertsonentzat), suhiltzaileak, etab, daude. Zer zerbitzuri deitzera erabakitzen dute bezeroek eta haien beharretara eskumuturra egokitu.



Antzeko beste aparailuak ez bezala, gure eskumuturra edozein pertsonarentzat pentsatuta dago (helduak, umeak, elbarrituak, gaixoak...), gainera bere teknologiak eskumuturra etxetik ateratzean hau funtzionatzen jarraitzea ahalbidetzen du, tomarik erabili gabe. Gure produktuaren helburua, botoi bati sakatzuz edozein telefonori deitzea da, horrela laguntza bidaltzeko. Gure eskumuturra pertsonalizatzeko arreta telefonora deitu behar da edo email-en bidez eta bertan azaldu zer nolako beharrentzat nahi duzun, gure taldeko norbaitek zure beharretara egokituko du horrela poliziarri deitzeko,



ambulantziari deitzeko edo partikular bati deitzeko egokituz. Gainera behin eskumuturra etxean izanda, sistema informatiko baten bidez hura aldatu dezakegu. Helduek, gehienetan arazoak izan ditzakete hau egiteko, baina elkartearen bidez, laguntza jasoko dute eskumuturra pertsonalizatu ahal izateko (Ikusi "Elkarteak" atala).

Gure eskumuturren diseinuak era askotakoak dira, egitura erosoak dituzte eta gainera, diseinu ugarien artean aukeratzeko ahalmena izango dute erosleek, gustuko dutena erosteko. Erasoetarako erabiltzen baduzu eskumuturra, zaila izango da erasotzaileentzat jakitea benetako eskumuturra den edo larrialdietarako balio duen gailu bat den, eta orduan seguruago egongo zara.

Prezioa ez da oso altua izango, 50-60€ inguru. Eta hura erosteko interneten bidez edo telefonoz deituz egin daiteke.

Gainera, gure eskumuturra erresistentea da, urak eta suak ez diote eragiten. Adibidez, bustiz gero ez litzaioke ezer gertatuko.

Lehen aipatu bezala, edonork erabil dezake, oso erraza da hura erabiltzea soilik botoiari sakatu behar zaio eta.

